



## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO-KANALAK

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

Jakinaren ganean gaude kanala ezinbesteko alderdia dela gure proiektua merkatu-segmentuetara helarazteko, eta hortaz, lan handia gauzatuko dugu kanalak modu erabilgarrian eta esanguratsuan erabiltzeko. Kontuan hartuta gure proiektuak ez duela bere baitan inolako produktu fisiko edo zehatzik, gure esku dagoen kanal esanguratsuena **komunikazio-kanala** izango da.

Komunikazioaren bidez gure balio-proposamena helaraziko dugu, **Akelarrek** dituen abantaila guztiak ezagutzera emanez eta Gasteizko emakumeei bideratuz, kanal zuzen, pertsonal eta naturalen bidez.

Agerikoa da gugeu emakume gazteak garela, aplikazio honen sortzaile izateaz gain erabiltzaile ere izan gaitzkeenak. Hau horrela izanik, **gure emakume-sare** guztietara bideratuko dugu gure proiektua, wasap-talde, kuadrilla, elkargune feminista edo bestelako konfiantzazko taldeetatik kanala bidaltzen hasiz. Honen barne sartuko litzateke instagram, twitter edo facebook bezalako plataformetan ere Akelarre-ko kontu bat sortzea, internet eta online-plataformen bidez ere informazioa sustatzeko, jende gazteari gerturatzeko eta ezagutzera emateko.

Behin hori eginda eta kontuan hartuta aurreko atalean aipatutako elkarlanean ibiliko diren **elkartek** eta **alderdi publikoen** laguntza, hauetaz baliatuko gara gure proiektua ezagutzera emateko. Hortaz, *Satevi*, *Hegoak* zein *Gizarterako* bezalako elkarteek beraien erabiltzaileei gure proiektuaren gaineko informazioa helaraziko diete eta beraien gunetan honen inguruko kartelak kokatuko dituzte. VitalFundazioa, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaularitzaren eskutik haien plataformetan, gunen publikoetan, irratian zein berrietan **Akelarre** sustatuko dute.

Hortaz, laburbilduz, **komunikazio-kanala** baliatuko dugu bai ahoz-ahoz, internet zein online-plataformen bidez, hirian zehar kokatutako kartel bisualen bidez eta kolektiboarekin lotutako elkarte eta zerbitzuen bidez **Akelarre** ezagutzera emateko.



2023/2024

Honako hau izango da komunikazio-kanal horietan baliatuko dugun kartel-informatiboa. Horrela, **Akelarre** aplikazioa modu bisualean, zuzenean, naturalean, gertukoan eta sinplean gure bultzauko dugu, hain heterogeneoa den emakumeon kolektiboari bideratuta beti ere:

VITORIA GASTEIZ green capital

AKELARRE

**EMAKUMEAK AHALDUNTZEN,  
AMETSAK KONEKTATZEN**

**EMPODERANDO MUJERES,  
CONECTANDO SUEÑOS**

GURE APLIKAZIOA, ZURE KOMUNITATEA!

¡INVESTRA APP, TU COMUNIDAD!

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala

AKELARRE

12:30

016

BERRIAK

EGUNEKO IRTEERAK

EGUNEKO TAILERRAK

BETI ELKAR INDARTU